

Jubilatuak

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL



ORAINDIK

zenbait urte geratzen zaizkidan arren, ez dira gutxi nere balizko jubilatzaioari eskaini dizkiodan hausnarketak. Gutxi gora behera, gainerako hilkorrek egin duten gauza berbera. Lanean hasteko irrikan gaudelarik, gure lehendabiziko soldata zertan inbertituko dugun eginen dugu amets, nahiz eta sarri asko soldata hori aurretik hipotekatuta daukagun. Laneko eskailera astunetik gora abiatu bezain laster, bihar etzi ezezagunak zer ekarriko ote digun pentsatzeak inhurriduraren antzeko zentzazio desatsegina sortzen du gugan, eta ahal delarik aurrezeari eskaintzen diegu soldataren zatitxo bat, bapatean ager daitezkeen ustekabeek aurrezikiko kartilla hutsaren pare utz badaezkete ere.

Jubilatuak, orohar, konformatze oneko gizon-emakume direla esango nuke. Bizitza eman dien ikuspegi zentzudun eta orekatutik aztertzen dutelarik, gutxi dira euren protesta zalapartako mailaraino altxatzen dutenak, seguruenik bizitza berak aski eskarmentatuta utzi dituelako. Eurek badakite, egundokoak eta bi egin arren, ezer gutxitan hobea gogotuko dela, euren eta aurrekoen esfortzuaz erakituta izan den gizarte eskertxareko eta ganorabakoak eskainiko dien lan sariaren apurra.

— Gaurregun, gainera, askozas lehenago jubilatzen dituk langailek. Laster berrogeitamar urterekin ere lizentziatuko gaituzteak... ikusiko dok!
ziostan Xabier lagunak, gutxi barru jubilatuen tropela osa genezakeenok aipaturiko ikuspegi zentzudun eta orekatutik eza nabari genezakeela oroiteratzen zidalarik.

Tutik ez

TXILLARDEGI



ARGI eta garbi: ez dut ezer konprenitzen.

Prentsan irakurri dudanez, deklarazio pisutsuak egin ditu Txema

Monterok El Escorial-en. Besteak beste, «borroka armatuaren desegokia» salatu bide du, eta ET Aren amaia iragarri.

Nik miretsi egin dut Txema, beste abertzale askok bezala. Baina orainoan ez dut fitxik ulertzen.

Oso ximplea naiz. Zalantzarik ez dago. Herri honetan *Auto-Determinazio prozesua bideratuko ez deno*, gudariaren borroka armatua gaitzesterik ez dagoela iruditzen zait; zampaketak indar armatu inperialistak hortxe daudelako.

Semiologia gailen agertzen den une honetan, bestalde, Txemak El Escorial hau-taztea, hain zuzen, oso kritikagarri iruditzen zait. Haurtzaroan gurasoekin El Escorial-go monastegi azuna ezagutu nuen bez geroztik, eta espainiar errege zapaltzaile eta inperialista haien hilobi hyper-dotoreak bisitatu nituelarik, oroitzapen hau ekarri nuen: *hortxe dago* "España inperial" fatuarearen gordailua. Eta gudariak gaitzesteko, hara joan preseski?

Zer nahi duzue? Gerry Adams Londres-a joan, eta hantxe IRA gaitzetsiko balu; edo-ta Arafat-ek Tel-Aviv-en 'Al Fatah' kondanatu balu, zer pentsatuko zenukete?

Nik orain neure kaskotik uxatzen dezan gauden gauza bera.

EL DIARIO VASCO

Elkarrizketaren mugak

Ajuria Eneko hitzarmenak diagnostiko zuzena egina zuen ETaren terrorismoak adierazi gatazkaren izaeraz, horren iraupena, neurri handi batean, euskaldunen arteko elkartzitza zibilareko arazo bat zela ulertzen bait zuen, eta hori isladatuta gelditzen zen gutxiengo baten saildian era totalitario eta biolentoz bere irizpideak gizartearen gainontze-koari ezartzeko. Hitzarmen hari esker, azkeneko euskal nazionalismoak ETA errotik desgigitu-matzen zuen Euskal Herriaren nahia adierazi eta herriko arazo politikoak negoziatzeko horren asmoan. Horregatik, penagaria litzateke ezker abertzale eradi-kalarekiko komunikazio jarioak berriro nahastu ahal izatea zorio-nez mugatuta zeudela ziruditen bi plano.

Biolentziaren amaierari buruzko litekeen elkarrizketa batek ezker abertzalearen integrazio

demokratikoa errazteak ez du berez ekarri behar alderdien arteko elkarrizketa ezkutu bat egungo marko juridiko-politikoak berraztertze.

EDITORIALA

egin

Subiranotasuna eta harrokeria

Aste honetan bukatuko dira EAJ-HB elkarrizketak jarraipenerako atea irekita utziz. Herri

Batasunak abiarazi duen elkarrizketa zikloak, askoz puzzle zabal eta korapilatsuago baten zati denak, argi eta garbi eginen du apostu autodeterminazioantz bultzatuko duen batasun abertzale baten alde, saihestezina izango den Estatuarekiko hitzarmen baten perspektibaren baitan.

Alderdien arteko elkarrizketa hauek ezin dira baldintzatuta egon, ez eta beste indar politikok gauza dezaketen ihardueraren mende. Zail dauka EAK, berak dioenez HBrekiko elkarrizketaren defenditzaile denak, aitzaki bezala hainbestean erabilitako

«atentatuak tartean ez dugu hitzgingo» erabiltzeko, are gehiago EAJk berak ere ez diotien jarraera horri eutsi.

EAK elkarrizketa publikoki onartzen duenean jakin behar du ez dagoela oraintxe bertan treguarik. ETAk bere gain hartzen du bere ekintza eta horien ondorioen erantzukizuna edozein dirrela ere horiek, eta beti era ofizialean iragarri du bere iharduerako etaldien hasiera. Bere historian ez dira «tregua taziutako» existitzen halakotzat hartuta.

J. IRATZAR

ZUZENDARIARI

«Bakeaz gogoetak»

Bakeari buruzko bi jarraera kontrajarri ikusten dira:

—Ezarririk ordena mantentzeko eta indartzeko bakea nahi dutenean. Hauen bakea ezarririk ordena. lege eta arauetara mugatzen da, ez zuzentasunera eta eskubideetara.

Beraz, horrelakoen ustez, legetik kampo irteten denak bakea zapuzten du. Hauen esanetan Estatuaren segurtasuna da bakea, eta zilegi da, honek —Estatuak— armak, errepresioa eta menperakuntza erabiltzea hori garantizatzen. Hau da, segurtasunaren eta bakearen izenean, armak haru eta errepresioa erabiliko du ezarririk ordena inork arriskuan jar ez dezarik.

Ikuspegi honetatik, protestarik, gatazkarik, kontrako jarraerarik, aurkako borroka armatu eta gerrarik ez egotea bakea da besterik gabe. —Baina bada beste ikuspegi bat: Bakea eraikitzeko ezarririk ordena gainditu beharra dagoela uste dugunona. Zer gaitik? Eguneko egoeran onarritziko bidegabekeria daudelako, alegia.

Zein bidegabekeria? Nazio ikuspegi-tik: gure Herri-izaera onartu ez, eta ondorioz, garrantziko erabakiak hartzeko ahalmenik gabe aurkitzen da Herri hau.

Bestetik, egoera soziala: Klase sozial batek

bere interesen defentsarako besteei ezartzen dien zapalkuntza.

Eta honelako egoeran, gehiengoak nahi duena egitea ez da nahikoa bakea izateko. Bat-bestearen eskubideak errespetatzea baizik. Bakea ez da handiak txikia jatea, txikiak ere baditu bere eskubideak.

Pertsona bati nahiz Herri bati berea duena kendu bazaito, hori itzuli arte edo berreskuratu arte ez dago bake iraunkorrik.

Herri honen aldeko borrokan erori direnak gartzelatan edo erbesteratuta dauden bitartean ere ez dago bakerik.

Bakea ez da garaileen eta menperatuen arteko kontua, elkarrekin erabakitzekeo konpromezua da bake-bidea.

Bakea zer den esan baino gehiago praktikatu egin behar dela esango nuke, hortxe, praktikan, gure Herriko problema konkretuak aztertu, eztabaidatu eta konponbideak bilatzen ahalgintzea da bake-bidea.

Gure Herriko premiei, arazoei eta nahiei konponbidea bilatzen diegun heinean bakeari bideak irikitzen ari gara.

—Gure Herriari kendu zaizkion eskubideak berreskuratzekeo borroka egitea bake-bidea da.

—Hona hemen, nire ustez, bake-bidean landu beharreko balore batzuk:

Berdintasuna, zuzentasuna, askatasuna,

solidaritatea, elkarganako errespetoa, bizitzeko gogoia, maizteko gaitasuna, elkarrizketarako gaitasuna, partaidetza, eta abar.

Balore hauek praktikari tinkotasuna eta indarra ematen diote etorkizuna eraikitzeko.

Gure bizitzan bukatuko ez dugun lan luzea dugu bake-bideak egitea. Eta gainera, bake-bideak egiteak berarekin dakar nolabaiteko gatazka edo konfliktua ere.

Guk legeri eta ordena ezarriari baino gehiago bake-bidean behar ditugun baloreak lantzeari eta praktikan jartzeari ekin behar diegu.

Bakerako bideak egitea ez dugu besteren esku utzi behar, gutako bakoitzak du zer esana eta zertan konprometitu.


Bakeari buruz ditugun irizkiak eman, eztabaidatu, aztertu eta sakondu egin behar ditugu. Horretarako, irizki ezberdinetako jendea biltzea ere interesgarri izango litzateke.

Bakezale garelako esaten dugun guztiok, bakea behar dugula esaten dugun guztiok, bakoitzak dituen eskubideak errespetatu eta zuzengabekeria guztiak ozkeni salatu, bakeari bideak irikitzen saiatuko bagina, gogorkeria guztiak ekingindio edo baztertuko genituzke.

M.A.

Arrasate (Gipuzkoa)


GAIA JARRITA



Usurbil

Igande goizez telebistari eskaini nion ardura, herri arteko norgehiagokan Usurbil eta Segura. Irabazlea nor izango zen hasieran bazeu zera halabeharrez, aurtien txapela Usurbilera heldu da. Segurak ere ez zuen De la Cruzen gurutzerik gura.

RUFINO IRAOLA



Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANOA

Zuzendaria: INAKI URIA

Zuzendariorde: LUZUEN ETXEZAHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: KÖRNELO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industriaidea 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegi, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kaita. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11